

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko ekainak 14 · 1317 zenbakia

IKASTURTEKO EMAITZA ARTISTIKOA



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Erreal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.

Garajea • Gimnasioa
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ra
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK

* Kontuak eta lege-oinarriak

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

**Batzen gaituenak,
mugitzen gaitu.**



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberibat



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du gaur gauean, Untzagan. 'Erztunen jauna' pelikula-sagaren soinu bandaren pieza batzuk joko dituzte pelikulen irudiekin lagunduta, Andoni Vazquezen zuzendaritzapean bandak izan dituen berrikuntzen erakusle.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Negozia eten, alokairu publiko eta soziala orain!

Nork ez du bizi etxebizitza problematika bere azalean? Alokairuen prezioa etengabe igotzen ari da, eta gure herrian bizitzea gero eta zailagoa zaigu. Hipoteka aldakorra sinatuta, kuotak bikoiztu egin dizkigute, eta finkoa genuenok ere urte luzeak eman behar ditugu oraindik banketxeari eta zorra-ri lotuta. Etxebizitza publikoaren itxaron zerrenda luzeegia da, eta eskaintza murriztegia. Pentsioaren zatirik handiena etxebizitza gastuetara bideratzen dugun bitartean, seme-alabak eta ilobak emantzipatu ezinik dabilta. Zer esanik ez ama bakarra garenok, beste herrialdeetatik etorri garenok, erroldarik ere ez dugunok.

Etxebizitza, negozio bide oparoa batzuentzat eta eskubide ukatua gehienontzat. Ez da bidezkoa. Aterabideak kolektiboa izan behar duela sinetsita gaude. Etxebizitza eskubidea bermatzeko merkatuaren logikatik ateratzea ezinbestekoa da, eskubide unibertsala eta erreala izan dadin. Pertsonarik ez dadin egon aterpe duinik gabe. Eta badakigu eskubide guztiak lortu diren modu berean lortu beharko dugula hau ere: elkarrekin antolatuz, borroka eginez.

Etxejabeei presio eginez arazo asko konpondu daitezke; instituzioak interpelatu, politika publikoak aldatu daitezke. Parke publikoa handitzea eta etxe hutsen zergapezte, besteak beste, borondate politiko kontua direlako. Eta borondate faltaren aurrean erabakiz aldatzea eragin dezakegulako.

Etxebizitzaren arazoan, lan gatazketan bezala, langileon bizi baldintzak hobetu, gure aldeko neurriak irabazi eta garaienak lortzeko presio sindikala beharrezkoa izango da. Haiek antolatuta daude. Guk ere antolatu beharra dugu, eta LABek ez du hutsik egin nahi.

Etxebizitza publiko eta sozialaren alde. Alokairu eta hipoteken prezioak jaisteko. Funts putre, banketxe, etxe-agentzia eta etxejabeen espekulazioaren aurka. Higiezinaren patronalaren abusuei aurre egiteko. LAB borrokarako prest!

LAB - Abiatu Asanblada

Eibarko Elkarte Gastronomikoen argitalpen berri bat egiteko zuen laguntza behar dugu

...eta kitto!-k 1996an argitaratutako herriko Elkarte Gastronomiko guztiak biltzen zituen liburuko datuak gaurkotzeko asmoz, 2024a amaitu baino lehen kalera-tuko dugun publikaziorako informazioa jasotzen hasi gara. Orain dela 28 urte egin genuen moduan, helburua gure herriko soziedade guztietako informazio praktikoa jasotzea da. Horretarako elkarte gastronomikoetako kide zaretenon laguntza beharko dugu. Gure arteko komunikazioa errazteko asmoz, 605711422 whatsapp zenbakira idatzi dezakezue, zuen elkartearen izena eta kontakturako telefono bat adieraziz. Horrez gain, orduko liburuan azaldu ziren elkartetako helbideetan eta ordutik hona sortu direla jakin izan dugunetan ere gure gutuna jasoko duzue. Bertan jakinaraziko dizuegu zein datu behar ditugun fitxa modukoa osatzeko. Publikazioan datu horiek eta elkarte gastronomiko bakoitzaren argazkia joango da. Edozein zalantza argitu nahi baduzue edo bestelako informaziorik jaso, publikizitatea@etakitto.eus helbidera idatzi dezakezue, edota goian aipatutako telefonora deitu edo idatzi. Eskerririk asko!

...eta kitto!-ko erredakzioa



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PAPAR → Bularra, eskotea. “Otxiñak egin dittu eta hor dabil, narkoen antzera, urrezko katai lodixa paparrarian”. Erroparen goiko alde. “Paparretik helduta astindu ederra emon etsan”.

PAPARRA ZABALIK → Alkondara zabalik. “Negu gorrixan be, paparra zabalik, ulia darixola”.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 20
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Miguel Angel Arrizabalaga Gisasola.** 83 urte. 2024-06-02.
- **Estefana Unamunzaga Madariaga.** 95 urte. 2024-06-05.
- **Maritxu Arabaolaza Alzelai.** 91 urte. 2024-06-06.
- **Miren Furundarena Kalzakorta.** 90 urte. 2024-06-06.
- **Tina Garcia Torices.** 94 urte. 2024-06-08.
- **Victorina Martinez Ruiz.** 102 urte. 2024-06-08.
- **Ines Cano San Emeterio.** 75 urte. 2024-06-11.

Jaiotakoak

- **Ekhi Argarate Ceballos.** 2024-06-01.



Oparitu Eibar erosketa-bonuen sanjuanetako promozioa ipini dute martxan

Tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko asmoz, atzo abiatu zen Oparitu Eibar txartelaren sanjuanetako kanpaina berria, Eibar Merkataritza Gune Irekia elkar-tearen eskutik. Txartelak www.erosieibarren.eus plataformaren bidez erosi ahal izango dira bakarrik, eta txartel hori erabilita egiten diren erosketak ekainaren 30a baino lehen egin beharko dira. 40 eurotan erositako txartelak 50 euroko balioa izango du. Eta, bi bonu erosiz gero, Oparitu Eibar txartela

80 eurotan erosi, eta 100 euroko balioa izango du. NAN bakoitze-ko bi bonu eskuratu ahal izango dira gehienez, eta EMGI elkarteko komertzio eta zerbitzuetan (116 tokitan) erabili ahal izango dira. Interneten txartela erosi ondoren, bi egun itxaron beharko da aukeraturutako dendaren batera joan eta txartela jasotzeko. Hiru toki daude aukeran: Estaziño kaleko Burbujas y Mas, Calbeton kaleko Lacuesta optika, eta Amañako estankoa.

Gutxienez 217 lagunek eman dute izena TEK Eibar energia komunitatean

Eibarko biztanleek eta denda txiki zein ertainek tokiko energia kontsumitza ahalbidetuko duen Eibar TEK energia-komunitaterako izen-emateak oso harrera ona izan du, Jon Iraola alkateak, Alberto Albistegi Obra eta Ingurumen zinegotziak, Ana Aranberri Eibar Merkataritza Gune Irekiko ordezkariak eta Edinorrek Josu Etxebarriak aste ho-

netan eman duten prentsaurrekoan esan dutenez. Komunitateko bazkide izateko izen-emate kanpaina amaitutzat eman dute, eta orain arte Eibarren 217 lagun behintzat izan dira izena eman dutenak: "TEK Eibarko energia-komunitateak harrerabikaina izan du, %69tik gorako okupazio-tasarekin". Irailerako dena martxan egotea espero dute.

Aurten 45 urte beteko dituztenen kintada-jairako izen-ematea zabalik

1979an jaiotako eibartarrek irailaren 14an ospatuko dute kintada-eguna, eta horretarako 12:00etan elkartuko dira Untzagako harmailetan. Joan nahi izanez gero, 100 euro sartu behar dira ES52 3008 0171 6651 9647 8126 kontu korronte zenbakian, izen-abizenak argi adierazita. Izena emateko epea uztailearen 31n itxiko dute.



Etxera Eguneko bazkarirako tiketak salgai

Urtero bezala, aurtengo sanjuanetan ere preso, iheslari, senide (Sare, Etxerat) eta preso ohie (Harrera) elkartasuna adierazteko bazkaria egingo da. Ekainaren 22an (zapatua) izango da, txosnagunean, eta joan nahi duenarentzat tiketak salgai ipini dituztela jakinarazi dute antolatzaileek (15 eurotan, 12 eurotan langabetuentzat). Txosnak ere egun horretan zabalduko dituzte, 12:00etan Bea Egizabalen eskutik egingo den ekitaldian. Ondoren Yare Sound System-ek girotutako marianito-pintxada egingo da. Arratsalde gauerako ere egitarau zabala prestatu dute: Xabier Badiolaren kontzertua, DJ Txarazpikua kamioian, eta Malko, Nikotina eta DJ Galtzagorriren kontzertuak, besteak beste.



Europako Hauteskundeetan Eibarren izandako emaitzekin aldizkari digitala prestatu dugu

Hiru hilabete ere ez dira pasatu azken aldiz botoa ematera joan ginetik eta, beste behin, hauteskunde bakoitza desberdina dela, eta bere berezitasunak dituela laga dute agerian domekako emaitzek. Oraingo honetan ez dugu paperezko aldizkari berezirik kaleratu, baina Europarako hauteskundearen emaitza

guztiak (orokorrak eta Eibarkoak) www.etakitto.eus gure webgunean ikusi eta deskargatu ditzakezue, PDF formatuan jaso ditugu eta.

Europako Parlamentuko Hauteskundeetako boto guztiak zenbatuta, PSOE izan da garaile Eibarren, 3.602 botoarekin (%34,57), eta 642 boto gutxiagorekin EH Bil-

du izan da bigarrena (2.960 boto, %28,47). EAJ-PNV urrutiago geratu da, 1.959 botoarekin (%18,84). PP alderdiak 816 boto eskuratu ditu gurean (%7,8), eta atzerago geratu dira Podemos (300 boto, %2,8) eta Sumar (263 boto, %2,52). Vox-ek 145 jaso ditu (%1,3). Parte-hartzeari dagokionez, %50,63koa izan da, apirilean egin ziren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetakoa baino ia 12 puntu azpitik kokatuz. Eibarren botoa ematera deituta zeudenen erdiak hartu zuen parte, eta boto-emaileak 10.397 izan dira guztira.

EIBARREN

GIDABAIMENA

EUSKARAZ

ATERATZEN BADUZU,

AKEBAI

250€

100€

50€

-KO EROSKETA-BONOAK LOR DITZAKEZU

INFORMAZIO GEHIAGO:

943 70806
eibarenakeba@gmail.com

Euskaraz



Multikirolak proiektuak jarraitu egingo duela bermatu die alkateak familiei

Eibarko ikasleen gurasoak Multikirolak proiektuarengatik kezkatuta daudela eta, Jon Iraola alkateak gutun bitartez erantzun die, zuzenean: “Multikirolak proiektuarekiko Udal honek duen eta nik neuk, alkate naizen aldetik, dudan konpromisoa berretsi” nahi izan dio Erain elkarteari. Maiatzaren 6an egindako bilera gogora ekarri nahi izan du, baita bilera horretan landutako gaiak ere: “Gurasoentzako 2023/24 dirulaguntza izendunen gestioa ahalik eta azkarren egitea, Udalak Athlon kooperatiba kontratatzea, eta Eibarko Udalaren eta Erainen artean hitzarmen bat sinatzea”.

Gauzak horrela, zera argitu nahi du Iraolak: “Udalak inoiz ez dio bere erantzukizunari uko egin eskola-kirolaren gestioan; maiatzaren 6an eta 21ean egindako bilerek erakusten dutenez, ez da babes teknikoa galdu, aurki Athlon kontratatuko baita, ezta Udalarekiko elkarrizketa ere, zuen esanetara bainago gaiari dagokion edozein kontu aztertzeke; hilabete honen erdialdean, eta behin aurrekontua onartuta, 23/24 ekitaldiko dirulaguntza izendunen ordainketa premiazko izaeraz ari

dira izapidetzen, eta guraso elkar-teeke dirulaguntzaren justifikaziodokumentazioa noiz aurkeztu zain daude. Laster Udala-Erain Hitzarmenaren zirriborroa bidaliko diogu Eraini, aztertu eta sinatzeko, baina prozesua, tamalez, ezin izan da maiatzaren 31rako amaitu (Erainek maiatzaren 21ean Udalean aurkeztutako idatzian eskatzen zuen bezala), denborarik ez dagoelako”. Hala ere, ahalik eta azkarren egingo dutela esan du. Klubei egin beharreko 22-23 ikasturteko dirulaguntza ez ordaintzeko arrazoia ere azaldu du: “Besteak beste, klubek ezin izan dituztelako egindako gastuak egiaztatu (hau derrigorrezkoa da), eta une honetan arazo juridiko hori konpontzen saiatzen ari gara”.

Gutunaren bidez, Multikirolak programaren inguruan egiten ari diren gestioak zehaztu nahi izan du, “baita familiak lasaitzea eta Eraini berme finantzario eta teknikoak ematea, Multikirolak proiektuarekin 24-25 ikasturtean eta hurrengoetan jarraitzeko”. Eraini konfiantza-marjina eskatu dio, “egiten ari garen lanak fruituak eman, eta denon artean egoera konpontzeko”.



Barrakak erdi prezioan izango dira datorren egunean

Sanjuanetarako egun gutxi falta direla eta, eguaztenean hasi ziren barrakak muntatzeko lanak egiten. Urtero bezala, Txaltxa Zelaian, Untzaga gizarte zentruaren gaineko parkean ipiniko dituzte atrakzio guztiak. Beti bezala, jaien aurretik barraketan erdi-prezioan ibiltzeko aukera egongo da: datorren egunean (ekainak 20) izango da horretarako eguna, ferriako atrakzioen prezioa 1,20 eurokoa izango da eta.



Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko informazio-zerbitzua

Datorren astean, eguaztenean izango da Ikasten elkartearen eskutik martxan hasi berri den Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko informazio-zerbitzua hurrengo saioa. Gaiaren inguruko interesa duen edonor hartzeko prest egongo dira Agurtzen taldekoak, Untzaga gizarte zentroan (Arrate aretoan, lehen solairuan), arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.



Indarkeria sexistari #puntuetakitto ipintzen aritu ziren Altzoako emakumeak

Kalean Ehuntzeko Munduko Egunaren harira, zapatu goizean Untzagan egon ziren Altzoa emakume elkarteko kideak, puntua egiten. *Matazaki indarkeria sexistaren aurka* ekimenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, *Kaleak gureak dira. Jar diezaiogun #puntuetakitto* indarkeria sexistari aurre egiteko egitasmoa antolatu du aurten ere hainbat herritan, eta Eibarren Altzoa arduratu da jardueraz (Argazkia: *Leire De Blas*).



Poesiari eskainitako gaua Errebal Plazaren babespean egin zuten

Eguraldiaren iragarpenen arabera euria zetorrela-eta, badaezpada Errebal Plazan egin zuten poesia eta musikari eskainitako saioa zapatu arratsaldean, Ibarkurutzen egin beharrean. Urtero bezala, parte-hartze zabala izan zuen Maite Lorezok zuzenduta sanjuanen bueltan egiten den ekimen honek (Argazkia: *Eibarko Udala*).

Altxau Burua Eibar guraso taldeak "Udako Altxa Burua" erronka proposatu du uda honetarako

Mugikorraren gehiegizko erabilerak eta sare sozialetan adin goiztiarretan hasteak euren seme-alabengan duen eraginaz arduratuta, "Altxau Burua Eibar" taldea sortu zen gure herrian orain dela hilabete batzuk.

Horrela, uda honetarako herritar guztiei zuzendutako erronka jarri dute martxan. Hamar puntuko eskuorri batean laburbildu dute erronka: jakinarazpenak isildu, deitu, mugikorra garbitu, gailuak berreskuratu, kalean altxa burua, mugikorraren txokoa, gauean itzali, gozatu mugikorrrik gabe, ohitura berriak praktikan jarri eta deskonektatu.

Taldetik adierazi dutenez, "erabilerara osasuntsuagoa bilatu nahian aldaketaren bat egiteko prest dagoen orori zuzendua dago erronka, heldu naiz gazte. Uda honetan Altxau Burua eta ondo pasa!"





Sanjuanetan arropa estrenatzeko ohitura handia zegoen. Argazkian, Maria Jauregi jostunaren tailerra. ARRATE OTALEKUREN BILDUMA.

Umetako kontuak. San Juan bezperan orfeioan abesteko zapatak behar zituen. Gustuko zapatak ikusi zituen denda baten, baina amak garestiak zirela eta "Maria zapaterianian" zeuden zapata merkeagoak erosi nahi. Azkenean nahi zituenak lortu zituen. San Juan egunean soineko eta zapata berriekin, pozik!

San Juan bezperan gustuko zapatak lortzeko egin zituenak

Luciana Larreategui Arizaga
(1912 – 2003)



Ardantza kalean jaio zen. Aita, Esteban Larreategi *Errotatxo*, eta ama, *Euzkiñekua*. Umetan udaletxeko eskolara joan zen. Jacinto Olabarekin grabatzen ikasi zuen, eta 1931n Eibarko Udalak Errepublikako presidentea zen Niceto Alcalá Zamorari oparitu zion pistola damaskinatua bien artean egindakoa zen. Aita bezala, Luciana ere mendizale amorratua izan zen, Errepublika sasoiaren Eibarko Club Deportivo-ko Juntan bokal izatera iritsi arte. Grabadore lanarekin jarraitu zuen luzaroan, baina ezkondu eta urte batzutura Alfan hasi zen lanean.

Luciana Larretaeguri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Neri akordatzen jatan... zapatak! Orfeioan kantau bihar San Juan bizperan ta zapatak gustatzen neri, "seis cincuenta". Zapatak, e? "Seis cincuenta". Zapata batzuk polittuak...! Eskaparatian. Amak: "Hi, zapatak noiz erosi bihar dittun?", "A! Neri gustatzen jataz holako lekuan daozenak, hau preziuuu dake ta haretzek gustatzen jataz!". Ta "Ez, ez, ez, ez... Pentsau be ez! Tres cincuenta-kuak daonaz Maria zapaterianian ta haretzek dittun hiretako modukuak" ta "A! Ba neri haretzek, seis cincuenta balio dabe, bai? Ta harek ez badozu nahi erosterik nik ez dot nahi zapatarik, nik ez dot ez dot erosiko zapatarik!", "Ba horrek karuak dittun ta horrek ez dao erosterik! Tres cincuenta Maria zapaterianian apartau!", "Ez noia ni Maria zapaterianera, ze neri ez jataz gustatzen ta!". Ta San Juan bizperia llegau ta zapatak erosi barik oindiokan. Orfeioan ensaiua atsaldeko seiretan, San Juan bizperan, gabian kantatzeko. Ta zapatarik ez etxian probatzeko (...).



Olinpiada Txikia
J-A. Mozet Ikarstolan
2024/06/08



Artearen sorleku eta gotorlekua

Zeramika Eskolako eta Dibujo Eskolako ikasleen lanak daude ikusgai egunotan Portaleako erakusketa aretoan. Ikasturtean zehar egindako lanaren fruituak dira, herrian sortzen den artearen erakusle txiki bezain aberatsa. Adin guztietako eibartarrek sortutako piezak eta koadroak ikusi ditzakegu bertan hilaren 18ra arte, 18:30etik 20:30era.

Zeramika
eskola



Marrakzi
eskola



Natalie Garrido eta Maite Barrainkua dira Zeramika Eskolako irakasleak. Esther Galarzak urte askoren ondoren kargua laga eta Esther Astarloak lekukoa denbora batez eraman ondoren, ikasle izatek irakasle izatera pasa zen Natalie orain dela pare bat urte. “Txipa aldatzea zaila izan zen, baina esperimientua ondo atera dela uste dut eta egunetik egunera ikasten ari gara”, bere ustez.

Denbora horretan, ikasle kopurua hazi egin da eta beste irakasle baten laguntzaren beharra ikusi du aurten. Horrela, Maite sartu da eskolan. “Aldaketa urtea izan da. Inoiz ez da egon hainbeste ikasle eta hori kudeatzea demaseko erronka izan da. Dena dela, uste dut helburuak lortu ditugula eta, erakusketa ikusita, pozik egon gaitzek”, uste du Nataliek.

Zeramika modan dagoela aipatu dute irakasle biek eta arrazoi nagusienetako bat sare sozialetan aurkitu



dute. “Instagram”, diosku argi eta garbi Natalieiek. Zentzu horretan, zera dio Maitek: “Gazteak animatu diren neurrian, euren ezagunak ere animatzen joan dira. Lehen umeak eta helduak etortzen ziren batipat”.

Sare sozialen bitartez lortutako oihartzuna, ostera, bi ahoko arma da. Batetik, bai, disziplina honetara hurbiltzeko modua izan da; baina, bestetik, sare horietan igortzen den berehalakotasunaren premia ekartzen du pazientzia ezinbestekoa den arlo horretara. “Zeramika modan dago eta Instagramen sartzen zaren bakoitzean gauzak oso errazak direla ikusten duzu eta, beraz, denek egin nahi dute zeramika”, diosku Natalieiek. “Behin hasita, eta gauzak berehala irteten ez direla ikusita, batzuk frustratu egiten dira eta ondo dago hori kudeatzen ikastea”, Maiteren ustez.

Etengabeko ikasketa

Adin guztietako 83 ikasle izan dituzte aurtengo ikasturtean. Batzuk hasiberriak dira eta beste batzuek urteak daramatzate. Bigarren hauek elkarren lagunak dira eta taldeak finkatuta dituzte. Hasiberriek, ostera, talde berriak osatu dituzte. “Oso giro atsegina sortzen da klaseetan”, diosku Maitek. “Hemen ez ditugu notak jartzen, beraz, ez dute inolako presiorik. Gustora egotera etortzen dira”, Natalieien berbetan.

Gauzak lantzeko orduan, irakasleak ikasleen arabera moldatzen dira. Hasieran oinarrizko teknikak erakustea ezinbestekoa den arren, zeramikaren mundua oso zabala denez, gauza ezberdin asko egiteko



Dibujo Eskolak eta Zeramika Eskolakoek erakusketa zabaldu dute. EKHIBELAR

>>> Portaleako erakusketa aretoak Zeramika eta Dibujo eskolakoek erakusketa jasotzen dihardu egunotan

aukera izaten dute ikasleek. “Teknika ezberdinen artean bat aukeratu eta horren inguruan euren proiektua garatzen dute”, azaldu digu Maitek. “Denboran jarraitzen dutenek hobetu egin nahi dute, batzuei eskultura gustatzen zaie, beste batzuei tornua... Zeramikaren munduan eurentzat teknika aproposena edo gehien gustatzen zaiena zein den deskubritzen dute, eta guk bide horretan laguntzen diegu”, azaldu digu Natalieiek. Beraz, ikasleek askatasunez egiten dute bidea eta irakasleek klaseak pixka bat pertsonalizatzen dituzte.

Berezitasun bezala, eta zeramikaren mundua zabala dela erakutsiz,

aurten ‘raku’ izeneko teknika ezagutzeko aukera izan dute Jesus Belausategiren eskutik. “Topalekun ‘raku’ erakusketa jarri zuen eta, irteera kulturalak egiten ditugunez, bertara joan ginen. Interesatu zitzaigunez, hainbat egunetan ikasleekin egon zen ‘raku’ egiteko prozesua azaltzen eta klasean piezak landu genituen, gero Jesusen baserriko labean egosteko. Ikasleek flipatu egin zuten. Antzinako teknika da, demaseko efektuak sortzen dituena eta eskola honetan oso gutxitan eskaintzen dena”, azaldu digu Natalieiek.

Historia luzeko artea

Ez da ‘raku’ teknika bezain antzinakoa, baina Eibarko Dibujo Eskolak oso ibilbide luzea egin du. “XIX. mendean, Compañía Guipuzcoana de Caracas-ek sustatuta, Dibujo Eskola sortu zuten Eibarren”, kontatu digu Leire Kareaga irakasleak. “Armagintza industriari lotuta zegoen. Gizonezkoak grabatugintzan eta damaskinatuan hezitzen zituzten, baina XIX. mende amaieraren inguruan emakumezkoak ere klaseak jasotzen hasi ziren”.



Ikasturtean egindako lanak erakutsi dituzte Portalean herriko artistek. EKHI BELAR

XX. mendean margolaritza lantzen hasi ziren eta eskolaren helburuak aldatzen joan ziren. “Armaginezaren lotura ez zen hain nabaria eta arte ederretako munduarekin lotzen joan zen”, irakaslearen berbetan, gaur egungora gerturatuz.

Irakasle ospetsuak pasa dira eskolatik, Lucas Alberdi eta Jazinto Olabe kasu, eta gaur egun Leire bera eta Iratxe Unanue dabilta lan horretan.

Ikasketa dinamikoa

Marrazkigintza eta margolaritza lantzen diren eskola izanik, irakasleek bi helburu dituzte: “Batetik, arte ikasketetan murgiltzea nahi duten gazteei oinarrizko heziketa eskaintzea; eta bestetik, artearekiko zaletasuna dutenei ateak zabaltzea, gure eskutik eramatea eta zaletasun hori handitzea”, Leireren berbetan.

Hori kontuan hartuta, “gure ikaslearen profila oso heterogeneoa da, bai adinarengatik bai helburuengatik”, irakasleak dioenez. 120 lagun inguru izan dituzte aurtengo ikasturtean

eta ezinbestekoa da programazioa zehaztea. “Gainera, normalean ikasleak hainbat urtetan egoten direnez, eurentzat erakargarriak diren gauzak eskaini behar izaten ditugu, aldaketak eta berritasunak sartuz”, kontatu digu Iratxek. Gainera, irteerak egiten dituzte, aire libreko lehiaketetan trebatzen dira eta San Juan jaietako danborradako karrozako piezak egiten parte hartzen dute.

Eskola heterogeneoa

Ikasturte bakoitzean gai bat aukeratzeko dute (paisaia, bodegoia, gorputza...) eta horren inguruan lanketak egiten dituzte. Horrela, aurten giza gorputza izan da landu duten gaia. Hasieran, ikasleak marrazten hasten dira, oinarrizko ariketak egiten. “Gero, urte asko daramatzatenekedo gaitasun handiak dituztenek beste lanketa batzuk egiten dituzte (kolorea sartzen, perspektiba lantzen, teknika ezberdinak...)”, diosku Iratxek.

Lan indibidualak egiteaz gain, lan amankomunak ere egiten dituzte,



eta horren erakusle da egunotan Portaleako erakusketa aretoan ikusi daitekeen mural handi bat. Bertan erretratista famatuaren autoerreturatuak ikusi daitezke, eta koadro hori Dibujo Eskolako hainbat ikaslearen artean eginda dago. “12 eta 93 urte arteko ikasleek hartu dute parte sorkuntzan”, aipatu digu Iratxek. “Talde ariketa hauek aberasgarria izaten dira, gazteria asko motibatzen delako eta esperientzia dute-nengandik ikasi egiten dutelako”, Leireren ustez. Zentzu horretan, belaunaldi ezberdinen arteko elkarlana oso aberasgarria dela diote, bertan bizi den giro heterogeneoaren erakusgarri.

Matrikulazioa zabalik

Eskola bietan jende askok parte hartzen duen arren, datorren ikasturterako matrikulazioa zabalik dago hilaren 20ra arte. Bi kasuetan matrikulazioa Pegoran egingo da, eta Udalaren webgunean aurkituko duzue informazio gehiago.

GIPUZKOA

Ekin.

*Gipuzkoa
oparagoa
izateko.*

Zaindu.

*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA

Foru Aldundia



Berbalagunek ondo merezitako omenaldia jaso dute

Joan den barixakuan Errebal plazan elkartu ziren Eibarko berbalagunak ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskaini zien omenaldian. Ikasturtea azken txanpara iritsi den honetan, berbalagunek egindako lana eskertu eta aitortu die euskara elkarteak.

Merezitako aitortza eskaini die ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan programako berbalagunei. Errebal plazan elkartu ziren barixakuan, talde ezberdinetako berrogehi bat berbalagun. Ekitaldia hasi aurretik joan ziren taldetxoak egiten plaza kanpoaldean; talde ezberdinetako berbalagunak elkar ezagutzeko edo agurtzeko aukera polita. Batzuk hasi berriak, beste batzuk beteranoak, baina batzuek zein besteek hunkituta jaso zuten eurentzat propio antolatutako ekitaldia.

Bertsoak, agurra eta esker oneko berbak

“Berbetan” insignia soinean jarri eta adi-adi jarraitu zuten plazako harmailetatik ...eta kitto!-k eskaini nahi izan zien omenaldia. Jon Mikel Mujika bertsolariaren bertsoak entzun zituzten aurrena, eta Kezka-ko Maier eta Enara dantzariak eta Josu txistulariak eskainitako agurra jaso zuten ondoren. Eta elkarretetik, esker oneko hitzak: “Ekitaldi honen bitartez, urte osoan egiten duten lana eta ahalegina eskertu nahi izan diegu berbalagunei, eta euskarari egiten dioten ekarpena balioan jarri”.

Sagardotegiraino kalejiran

Errebal plazako ekitaldia amaitu ondoren, Ipur sagardotegirantz abiatu ziren, Musika Eskolako trikitilarien laguntzarekin kalejiran. Jai-giroan egin zuten ibilbidea eta

jai-giroan jarraitu zuten sagardotegian ere. Mokadutxoa jan, elkarren berri izan, kezka, ardurak eta pasadizoak partekatatu, euskaraz goxo eta gustora. Oroigarria banatu zien han ...eta kitto!-k, “detaile xumea baina maitasun osoz eskainia, ekitaldia bera bezala”.

20 urteko ibilbidea

Hogei urtetik gorako ibilbidea bete du Berbetan programak. Euskarazko mintzapraktikako egitasmoak 2002an ekin zion bideari, “beharra dutenei euskara praktikatzeko aukera emateko helburuarekin. Euskaltegian ikasitakoa praktikan jarri, ahozko-euskara hobetu edo euskaraz berba egiteko ohitura berreskuratu, titulua atera, edota lotsa eta konplexuak alde batera utzi nahi dutenentzat programa da”, eta horretarako “euskaraz ondo moldatzen direnen edo euskaraz berba



egiteko ohitura dutenen laguntza garrantzitsua da. Taldeak horrela osatzen ditugu, praktika behar dutenak ondo moldatzen direnekin elkartzen dira talde txikietan, taberna batean zerbait hartzen edo paseatzen, eta giro natural horrek lagunduta lasai hitz egiten dute euskaraz”, diote ...eta kitto!-tik.

Ahalegin hori da, hain zuzen, euskara elkarteak aitortu nahi izan diena: “Mirestekoa da egiten duten ahalegina. Astero ordubete edo gehiago eskaintzen diote, euskara praktikatzeari batzuek eta haiei laguntzeari beste batzuek. Erraza egiten zaiela diote, ez diela esfortzu handirik eskatzen, eta hori entzu-

tea pozgarria da, baina ez zaio duen meriturik kendu behar”. Gaur egun ehun berbalagun inguruk dihardute egitasmoan.

Ikasturte amaiera

Ekitaldi honekin amaitu du “ofizialki” berbalagunen ikasturtea ... eta kitto!-k, baina berbalagun askok jarraituko dute oraindik ere elkartzen. “Sanjuanak arte elkartzen dira asko, baina uztailean “oporrak” hartzen dituzte gehienek”. Urte osoan eman daiteke izena, eta doan da. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.etakitto.eus webgunean edo 943200918 telefonora deituta izango duzue.

**Egiten duten
ahalegina eta
euskarari egiten
dioten ekarpena
aitortu zaie**



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón nr. 1 esk. Eibar
943 20 72 17 | 680 42 28 08
amaia@amaiaesnaoladentologia.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1 esk. 943-702898

arat.
ARAT ODONTOLOGIA CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Turibia Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 801
www.aratclinika.com

@arat_klinika



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
943 20 72 17

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarcinica.com
www.eibarcinica.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura dokorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
179 Kobieta da.

- FISIOTERAPIA
- KIBRA, LESIOAK
- Puztuta eta TRATAMENDUA
- K-STEELK + ERROTATZENA

ARRAGUSTA, 20
Tel.: 943 53 06 42
an_mendia@fibetel.com

Esku onetan egotearen
ziurtasuna.
30 urteko esperientziarekin,
dental teknologia onak erabiliz.

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 39
www.bistaeder.es

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziakoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez **Dr. Alejandro Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clínica estética

Medikuntza Kirurgia

- Dermatologia estetikoak
- Auzpeja gaitheak
- Botoxak
- Betazalá, belenak...
- Liposukzioak
- Kirurgia Intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

ANE VESGA

CLINICA MEDICINA ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuakoa

Arragueta 2bis B, Entrepilanta A
623 003 251 - info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Okulistikak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikak

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 203 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

638200124
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arragi (122 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologoak

PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO ARRETU PSIKOLOGIKOA

GONZALEZ DE MENDIBIL

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psicologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GODEZ ETA ARRATZALDEZ

Urkizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776

“Publikoan gorakada egon da, musikari gehiago ditugu eta askoz ere talde egonkorragoa dugu”

ANDONI VAZQUEZ SANTOS • Eibarko Musika Bandaren zuzendaria



Eibarko Musika Bandak oso kontzertu berezia emango du gaur, 23:00etan, Untzagan. 'Eraztunen jauna' sagako filmeen soinu bandako piezak joko dituzte, pantaila handian pelikuletako irudiak ikusten diren bitartean. Horrela, fantasia eta magiaz beteriko gaua eskainiko dute.

Andoni Vazquez Santosek hiru urte beteko ditu irailean Eibarko Musika Bandaren zuzendaritzan eta lehen eguneko ilusioarekin jarraitzen du. Bandak eskaintza aberastu du bere gidaritzapean eta, musikariaren bablesa jasotzeaz gain, publikoak bikain erantzun dio proposamen berriari.

‘Eraztunen jauna’ pelikula-sagaren musikarekin kontzertua eskainiko duzue. Nolako saioa izango da?

‘Eraztunen jauna’ pelikula-sagaren soinu banda oso ezaguna eta ederra da, eta musika horrekin kontzertua eskaintzeko gogoz genbiltzan aspalditik. Eibarko Musika Banda zuzentzen hasi nintzen momentutik izan dut San Juan jaien inguruan bandari beste puntu bat emateko gogoia. Ederra da danborradan San Juan ereserkia jotzea, baita San Juan Eguneko kontzertua ere, baina beste publiko batentzat zerbait eskaintzeko gaitasuna dugula uste dugunez, proiektu hau bultzatu dugu. Horretarako, ‘Hobbita’-ren bi pelikuletako eta ‘Eraztunen jauna’ trilogia guztiko soinu bandaren moldaketa batzuk aurkitu ditugu eta, musika aldetik oso politak iruditzen zaizkigunez, hauek nola hobetu ditzakegun pentsatu dugu.

Horretarako, pelikuletako zati ezberdinak moldatu ditugu eta, lagun batzuen lanari esker, pantailan ikusiko diren irudiek musikarekin bat egingo dute, zerbait berezia eta polita sortuz.

Irudia eta musika uztartzeak zailtasun berezia aurkezten du?

Hau guztia prestatzeko behar izan ditugun lan orduak ezin dira zenbatu ere egin. Guk geuk landu dugu guztia eta, gustora egin arren, egia da lan ordu asko direla. Gainera, logistika aldetik aldaketa asko egin behar izan ditugu. Izan ere, Coliseo antzokian eta kalean jotzera ohituta gaude, eta gure kasa ibiltzen gara dena muntatzen eta desmuntatzen, baina oraingo honetan ez da horrela gertatuko. Udala asko inplikatu da, soinu sistema eta pantaila handia jarri behar izan ditugulako. Beraz, horrelako zerbait egitea zailagoa da baliabideari eta logistikari dagokionez, baina baita ilusionagarriagoa ere.

Musikariek nola hartu dute erronka hau?

Normalean entseguetan oso dinamika polita edukitzen dugu, baina azkenengo bi asteetan, barixakuan dugun saioa ikusita, kontzentratuta egoteko eskatu diet eta jo eta fuego dihardugu. Ikastaro amaieran erlaxatu egiten gara, eta honek tentsioari eusteko



Andoni Vazquez Santosek hiru urte beteko ditu irailean Bandaren zuzendari bezala. EKHI BELAR

asko lagundu digu zerbait berezia eta ederra presatu ahal izateko.

Berezia da, baina azken urteotan erregistro zabala duen banda zaretela erakutsi duzue, musika-estilo ezberdinetako kontzertuak eskaini dituzuelako.

Bandan horrela jarduten saiatu gara. Orkestra asko gustatzen zait, baina musika jotzera dedikatuko banintz (musika irakaslea naiz), bandan aritzea gustatuko litzaidake. Izan ere, bandak hainbat gauza jotzeko aukera ematen dizu: hasi mundu sinfonikotik (urtarrilean musika sinfonikoari buruzko kontzertua eskaini genuen), jarraitu rock edo funk kontzertuetatik, heavy edo musika latinora helduz, eta baita musika herrikoira ere. Bandak duen gauza ederrenetarikoa da hori, zentzu horretan ez dizula erlaxatzen lagatzen. Gauza asko eta modu askotan jotzeko gai izan behar zara eta, ondorioz, azkar ibili behar zara beti.

Erronka txiki horiek bandan giro ona eta gauzak egiteko gogoia egoteko laguntzen dute?

Bai, noski! Bestela ezinezkoa izango litzateke banda aurrera eramatea. Astean birritan ordu eta erdiz elkartzen gara, urtean 18 kontzertu eskaintzen ditugu

“Eraztunen jauna’ pelikula sagaren soinu banda oso ezaguna eta ederra da, eta musika horrekin kontzertua eskaintzeko gogoz genbiltzan aspalditik”

eta guztira 80 entsegu inguru egiten ditugu. Elkarri ikusteaz aspertuta gaude. Lagun arteko giroa dugu bandan, baina horrelako gauza bereziak egitea berebizikoa da aurrera egiteko. Lan bolondresa egiten dugu eta ahalegina eskatzen digu, baina gogoz egiten dugun zerbait da.

Gaur egun nolako egitura duzue bandan?

45 lagun inguru gaude eta gehienak eibartarrak gara, baina badago Debarreneko beste herrietako jendea ere. Soraluzen eta Ermuan bandarik ez dagoenez, gurean aurkitzen dute tokia. Azken hiru urteetan

BIDEOA



gure jarduna bi denboralditan banatu dugu: urritik apirilera arte Coliseo antzokian jotzen dugu eta gairontzeko hilabeteetan kalean.

Orain, San Juan jaiak datoz. Sasoi berezia izaten da zuentzat?

Bai, ederra izaten da. Untzagan, gauerdian, San Juan ereserkia jotzen dugunean, asko gustatzen zait. Aurtengoan, gainera, gaur kontzertu berezia eskainiko dugu eta astebete barru danborrada dator, ordutegi aldaketarekin. Gure aldetik ondo datorkigu aldaketa hori, San Juan Eguneko kontzertuari begira atsedent hartzeko denbora gehiago ematen digulako. Ea aldaketa horrek nola funtzionatzen duen eta jende gehiago erakartzen duen. Izan ere, azken urteotan jende gutxiago egon da danborrada ikusten.

Udara begira, Sanjuanetan amaitzen duzue jarduna edo emanaldi gehiago eskainiko dituzue?

Uztailaren 5ean Toribio Etxebarria kalean eskainiko dugu denboraldiko azken kontzertua (euria egingo balu, udaletxeko arkupean). Azken urteetan egin bezala, errepasso moduko bat egingo dugu. Horrela, musikoei eta publikoari gustatu zaizkien piezak hartu eta horrekin emanaldia eskainiko dugu. Kurtso amaierako kontzertua bezala planteatuko dugu. **2021eko irailean hasi zenuen zure ibilbidea Eibarko Musika Bandako zuzendari bezala. Nolako urteak izan dira? Zein balorazio egiten duzu?**

Oso urte biziak izan dira. Profesionalki musika munduan nabil eta zuzendari bezala izan nezakeen lanaren inguruan ideia bat eduki nezakeen, baina egunerokotasunak errealitatea zein den erakutsi dit. Sekula ez zait kostatu hona etortzea, oso motibatuta nagolaiko eta asko gustatzen zaidalako. Gogo handiz egiten dudan zerbait da. Orain, esperientzia gehiagorekin, gauzak lasaiago hartzen ditut eta, agian, ordu gutxiago eskaini behar dizkiot nire jardunari. Gainera, azken urteetan publikoan gorakada egon da, bandan musikari gehiago ditugu eta askoz ere talde egonkorragoa dugu. Beraz, zuzendari bezala oso motibatuta jarraitzen dut.



“Ederra da danborradan San Juan ereserkia jotzea, baita San Juan Eguneko kontzertua ere, baina beste publiko batentzat zerbait eskaintzeko gaitasuna dugu”

Gauza asko egiten dituzue, gauza berri asko, baina zeintzuk dira epe labur eta luzera dituzun erronkak?

Erronka eta ideia batzuk badituz, bai. Poliki-poliki joango gara gauzak egiten. San Juan jaien inguruan eskainiko dugun kontzertu berezi horren formatuari eustea nahiko nioke, beste talde batzuekin elkartrukeak egitea nahiko genuke, umeentzat kontzertuak prestatu... Gauza berezi gehiago egitea nahiko genuke. Bestalde, zehaztuta dugun egutegiak zenbait jarraibide markatzen dizkigu, baina dugun marjenarekin beste gauza batzuk egiteko aukerekin jolastea gustatzen zaigu. Urte batzuetarako ideiak baditugu behintzat.



LEIRE NARBAIZA

Eibarrek irabazteko

Eibarren obrak iñun baiño luziaguak dira. Urte batzuk dakaguzenok akordatzen gara kiroldegixa egiten zenbat urte emon zittuezen. Coliseoko biharrak be luze jo zeben, udaletxeak ixia infinituak izan ziran, eta Errebalekuak Escorialekuak lakotxiak. Holan beti.

Askotan obrok geldi egon izan dira, aldamio, garabi eta trepetxuak bertan lagata. Beste batzuetan orube hutsak geratu izan jakuz, eta udalak porlan pixka bat bota eta parkin modoko batzuk jarri izan dittu. Luzienetakua Errebalekua. Baiña esango neuke errekorra laster kenduko detsala Bittor Sarasketa kaleko botatako Sarasqueta taillarren lurrak. Parkin deitzen detsagu, automobilak laga geinkezelako, eta izendatzeko beste modurik ez dogulako topatzen.

Estaziño kalera Urkusutik juateko, aittatutako kaletik edo Arraguetatik gora egin geinke. Arraguetan beste orube bat dago, ha be luzaruan bertan behera lagata. Hiru bat etxe bota ziran, eta hillietan egon dira hondakiñak jaso barik.

Leku horretan ez dabe aparkatzeko lekurik jarri. Edo bai. Izan be, hondakin hórren gaiñian zultzeko makiña itzela egon delako aparkatuta, eta behin harridak-eta erretirauta, bertan segitzen dau, aire libreko garajian.

Hilliak jua, hilliak etorri, urtiak pasau leikez holan. Hondamendi natural bat edo gerra pasatako lekuak dirudixe. Herritar askok bista hórrek dakez etxeko bentanetatik, asfaltua eta errepidiak gitxi balitzaz moduan. Zikiña eta narraskerixia nagusi. Arratoiak be ugaritu. Dekadentzixa usaiña bazterretan.

Urku inguruko kontuak dira, baiña herrixan zihar gainbehera hau argi ikusten da. Taillar eta eraikin huts abandonauak auzuetan, jausteko puntuan batzuk. Eta zer egiten da? Ezer be ez. Batzuk botatzeko modokuak izango dira, baiña beste batzuk gure historiaren parte, arkitektonikoki gorde biharrekuak. Danetan esku hartzia biharrezkua da.

Eibar bizigarrixa, noizko? Ondare industrial mantendu, eta gozuagua egin herrixa jendiandako. Zergaittik ez aprobetxau orubiok arboladun jardiñak egiteko kerizpe eta bankuekin? Holan eibartarrok irabazle!

**“Eibar bizigarrixa,
noizko? Ondare
industrial
mantendu, eta
gozuagua egin
herrixa jendiandako.
Zergaittik ez
aprobetxau orubiok
arboladun jardiñak
egiteko kerizpe eta
bankuekin?”**



Igeriketa artistikoko taldearen lehen txapelketa ofiziala

Eibar Igerixaneko igeriketa artistikoko taldeak egin duen lehen txapelketa ofiziala burutu zuen Sestaon, bertako igeriketa artistikoko taldeak antolatutako Opean. Nora Melo entrenatzailearen eskutik Open de Escuelas del Norte Txapelketan lehiatu du, Espainia osoko klubek parte hartu duten lehiaketan. Benjamin, alebin eta infantil mailan konpetitu zuten Eibarko neskek, “figurak eta duoak eginez: figurak banakako teknika maila neurtzeko mugimendu segida zehatzak dira, duoak dantza bat diren bezala; binaka sinkronizatu behar den errutina bat, horrela kasu bakoitza aparta eta bakarria bihurtuz”.

2014 urtea baino lehenago jaiotako neska-mutikoez hartu zuten parte aipatutako txapelketan, eta eibartarren kasua nahiko berezia izan da, “Orbea kiroldegian bakarrik zapatuetan entrenatzen dugulako eta, hala ere, igerilariak emaitza bikainak lortu dituztelako”. Esperientzia zoragarria bizi izan zuten Eibar Igerixaneko “artistikoenek”.

San Juan Sari Nagusia 88. ediziora helduko da domekan

Junior mailan inguruan dugun proba zaharrenetarikoa edizio berria jarriko du jokoan etzi goizean, herriko jaien inguruan Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatuko duen probarekin. Lasterketan, gainera, Gipuzkoako txapela izango da jokoan. Lasterketa goizeko 10:00etan abiatuko da eta txirrindulariek ia 100 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute: 97 kilometrotan Kalbario eta Azkarate gainak gainditu beharko dituzte. Bidean, Oñatiraino joan ondoren, handik bueltan Maltzagara etorriko dira eta, jarraian kostalderako bidea hartuta, Debatik



T. Etxebarrian kokatuta egongo den helmugarako bidea hartuko dute. Lehenengoek 12:30erako helmugaratzea espero dute antolatzaileek.



Urbateko infantilak Espainiako txapelketara

Infantil mailako Urbat Gorria taldeak Malagan jokatu den Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen aurreko domekan Mendizorrotzako igerilekuan, Lautadaren aurka oso partidu orekatu eta borrokatua jokatu ondoren. Euskal Herriko Ligan beste hemezeti talderekin izan dira lehian eibartarrak eta, aipatutako partidua-

ren ondoren, hirugarren postuan amaitu du Gorka entrenatzailearen aginduetara ibili den taldeak. Urbateko talde bat maila horretako txapelketa batera iristen den 21. aldia da honakoa, eta horietatik batean podiora ere iritsi ziren. Azpimarratzekoa da entrenamenduetarako dituzten zailtasunei aurre eginda waterpolistek lortutako maila.

SD Eibarrek hirugarrenean ere ezin izan du bere helburua bete

Hirugarrenean ere, ezin! Denboraldi bikaina egin du berriro ere 2. Mailako SD Eibar taldeak, baina azkenean aurreko bi denboraldietakoa errepikatu da. Behin igoera faseko kanporaketara helduta, lehenengoan kanpoan laga dute. Taldea 1. Mailatik jaitsi zenean, klubak hiru denboraldirako proiektua aurkeztu zuen, tarte horretan igotzeko helburuarekin. Baina amaitu da epe hori eta taldea hurrengoaren zain geratu beharko da. Oraingoan ere kanporaketa parekatua izan da, baina Oviedoren golak min handia egin zien eibartarrei eta, aldi berean, ahalegindu arren, freskotasun falta nabaritu zitzaion etxeko taldeari. Denboraldian zehar Hypermotion Ligan gol gehien sartu dituen taldea izanda, kanporaketako bi partiduetan bakar bat lortzeko gauza ere ez da



"Sinestu" esloganak ere ez zuen funtzionatu Joseba Etxeberriaren taldearekin.

izan, eta Bautista goleatzailearen falta gehiegi nabaritu du Ipuruako taldeak azken aldian.

7.732 ikusle, inoizko kopururik handiena, izan ziren Ipuruan herenegun. Euretako gehienak "sinetsita" zeuden hirugarren ahalegina arrakastatsua izango zela. Etxeberriaren taldeak nahikoa zuen Ovie-

dorekin berdintzea; baina, alperrik, ez zen gai izan abantaila horri etekina ateratzeko, eta akabo berriz ere onenekin aritzeko ametsa.

Partidu amaieran Ipuruan nagusitu zen tristura eta etsipenari aurre eginez, benetako zaletuak berdin jarraituko du taldea animatzen, itxaronaldia luze egiten ari bazaio ere.

Hodei Ezpeleta 3.a Urrezko Aizkolarietan

San Juan Txiki egunean, ekainak 25, jaien bueltan egiten den Euskal Jaialdiaren edizio berri bat hain gertu dugunean, bertan izango den Hodei Ezpeleta "Bihurri"-k ondo berotu zituen motorrak aurreko domekan Urrestillako frontoian jokaturako XXVII. Urrezko Aizkolaria Txapelketaren finalean. Iker Vicente nafarra nagusitu zen bertan, modu horretan hirugarre-



nez janzteko txapel hori. Irabazleak 19 minutu eta 6 segundo behar izan zituen lan guztiarekin amaitzeko. Mikel Larrañaga bigarren sailkatuak 21:45eko denbora egin zuen, eta Hodei Ezpeleta Mendaron bizi den eibartarrak 22 minutu eta 50 segundotan amaitu zuen bere lana. Eibartarrak orain dela hiru urte, 2021ean, txapel hori irabaztea lortu zuen. Bestalde, 25eko aizkora erakustaldiari begira, "aurtengo berritasun bezala, 5 metroko altueran izango dugun egur mozketak izango da". Hortik aparte, norgehiagoka nagusia bi laukoteraren artekoa izango da, tartean izango diren lau aizkolaria, bi emakumezko harri jasotzaile eta Iparraldeko jokoetarako beste bi lagunekin.

Saskibaloiairen Jaia ospatuko dute zapatuan

Eibar Saskibaloia klubak bere egun handia ospatuko du bihar Ipurua kiroldegian, horretarako squash pistak eta berdea erabilia. Klubak jokalaria guztiei eta euren gurasoei luzatu diete gonbidapena, prestatu duten egitarauko lehiaketetan parte hartzeko: "Trebetasun edo abilezia zirkuetoa egongo da, tiroak egiteko, 3x3 partiduak jokatzeko... hainbat sarirekin irabazleentzat". Jaialdiak goizeko 09:30etik eguerdiko 13:00ak arte iraungo du, barra ere egongo da janari eta edariekin, eta "saskibaloiarekin interesatuta dagoen edonor etorri daiteke".

Eibartarrak bigarren Unbeko Errugbi 7ko Erreginaren Kopan

Unben asteburuan jokatuak Iberdrola Erreginaren Kopako lehen fasean eibartarrek maila bikaina eman zuten, finala jokatzearaino. Final horretan azken bi txapelduen arteko ikusi ahal izan zen: alde batetik, eibartarrak, iazko txapelduak; eta bestetik, 2022an torneo irabazi zuten Sant Cugatekoek. Azken partidu horrek bi zati guztiz desberdinak izan zituen: lehenengoan kataluniarrak gehiago izan ziren, 15-0koarekin aldageletara joateko, baina handik bueltan eibartarrak nagusitu ziren, azken emaitza 15-12an lagatzeko. Asteburuan jasotako puntuekin, eta beste bi faseak jokatzeko zain, gaur egungo sailkapena honela dago: Sant Cugatek 20 puntu ditu, Eibar Rugbyk 18, CRAT Rialta Sevenek 16, Rugby Turiak 14, Olímpico de Pozuelok 12, Complutense Cisnerosek 10, Jabatas de Móstoles 8,



Eibar Rugby Taldeak 15-12 galdu zuen finalean Sant Cugat taldearen aurrean.

Universidad de Sevilla Costa Blancak 6, Ghenova Cocos Rugbyk 4, Energimac Majadahondak 3, XV Hortalezak 2 eta SANSE Scrum-ek bakarra.

Zazpiko modalitatean jokatzen den Erreginaren Kopan parte har-

tzen duten estatuko hamabi talde onenek datorren asteburuan Sant Cugaten bertan jokatu dute bigarren fasea, hurrengo asteburuan (ekainak 22 eta 23) Villajoyosan jokatu den hirugarrenarekin amaitzeko.

Baietz 312 Mendi! eta Baietz 100 Aldiz! erronkak aurrera doaz

Deporten mendeurrenaren bueltan mendi batzordeak antolatutako bi erronka horietan badoaz mugarriak gainditzen. Baietz 312 Mendi!-koan, ekainaren 11rako 124 igota zituzten, 39 zain eta 149 egin gabe, proposatutako beste birekin batera: Marokoko Atlasen dagoen Tubkal (4.167 metro) eta Frantziako Alpeetan kokatutako Dent du Geant (4.014). Proiektu horretan mendi errazak, zailak, bereziak, ederrak, itsusiak... Egindakoen artean daude, esaterako, Teide (3.715 metro) edo Balaitous (3.146), altuenen artean. Eibarko inguruetan edo Euskal Herrian dauden beste hainbat tontor ere zapaldu dituzte (klubeko banderatzkoarekin egindako argazkiak iagoera egiaztatzen du).



Dent du Geant mendia da proposatutako mendi bat, Frantziako Alpeetan.

Eguraldi onarekin, Pirinioak eta Picos de Europa erakarpen-guneak izango dira etorkizun hurbilean.

312 mendi ezberdin egitearen helburu horrek Urko argiztatzen egon zen jende kopuruari jarraitzen dio, 312 izan zirelako bertan.

Bestalde, Baietz 100 Aldiz erronkaren helburu nagusia urtebeteko epean mendi bat 100 aldiz igotzea da. Maiatzean Artarra izan zen ehun aldiz igotzen lehen tontorra. Erronka horretan 30 bat lagun dihardute parte hartzen, eta gertuko gailurretara igotzea aukeratu dute. Gehien eskatu direnak Urko (795 m), Topinburu (596 m) eta Galdaramiño (664 m) izan dira. Erosketa bonoa izango da saria 100 bider igotzen dutenentzako. Bi erronketan parte hartzeko xehetasunak klubaren webgunean kontsulta daitezke.



BAZKIDE zertarako?

Euskara, euskal kultura eta euskal ohiturak herriko jaietara eramateko
...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

San Juan Sua eta Euskal Jaialdia

Ekainaren 23an, San Juan bezpera, San Juan sua antolatuko dugu, herriko jaiekin bat egin eta ohitura zahar hau eibartarroi gerturatzeko. Ekainaren 25ean, berriz, San Juan txiki egunean, Euskal Jaialdiaren txanda izango da. Herri-kiroletako proba honek puntako kirolariak elkartzen ditu Eibarren, primerako ikuskizuna eskainiz. Euskal ohiturak eta usadioak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea!

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!



Izengabeak eta Izaro musikaz betetako asteburuan

Debabarreneko *Izengabeak* musika lehiaketaren esku-tik, kontzertuz betetako asteburua laga dugu atzean. Finalerako aukeratu zituzten taldeek zuzeneko emana-ldiak eskaini zituzten barixaku eta zapatuan, eta amaieran banatu zituzten Udalak lehen aldiz antolatu duen musika lehiaketaren sariak: 3.000 euroko sari nagusia Ur taldeak jaso zuen, eta bigarrena (2.000 euro) Slide taldeak. Euskarazko abesti onenaren saria (500 euro), berriz, Painapple taldeak eraman zuen. Gainera, Legarreko musika lokaletako grabazio-estudioa hainbat orduz erabili ahalko dute. Eta, lehiaketari amaiera biribila emateko, Izaro abeslariak kontzertua eman zuen Untzagan. (Argazkiak: *Eibarko Udala*).



Breaking Eibar dantza txapelketa bihar Errebalen

Bihar *Breaking Eibar* Eibarko IX. Break Dance eta New Style txapelketa egingo da Errebal Plazan, 16:00etatik 21:00ak arte. Antolatzailen arabera, sarr-juanen atarian egiten den lehiaketa erreferentziatzko zita bihurtu da dantza estilo horren jarraitzaileentzat, eta kalitate handia duten dantzariak etorri daitezten ahalegintzen dira beti. (Argazkia: *Eibarko Udala*).

Bengoren euskarazko rap elektronikoa bihar Untzagan

Kontzertua emango du bihar Bengo oiartzua-rrak, 23:00etatik aurrera Untzagan. Hip-hop kul-turaren baitan dagoen artista gaztea break dan-tzaria eta abeslaria ere bada eta, musika sarera igotzen sei-zazpi urte badara-matza ere, euskaraz grabatutako 4 *Taupada* izeneko albuma da bere estreinako lana.



Ukelele tailerrak eta ipuin musikatua

Musikaren Europako Eguna ekainaren 21ean ospatzen denez, eta Musika Bulegoak egindako deialdi berezi baten ondorioz, tokiko hainbat eragilek antolatutako ekitaldi batzuk babestuko dituzte. Horrela, martitze-nean Euskal Barrok Ensemblek zuzendutako *Euske-lelea* ipuin-musikatua aurkeztuko dute Coliseon (5 euro). Eta bezperan, berriz, ukelele tailer bi emango ditu Enrike Solinis irakasleak, Eibarko Musika Esko-lan (17:00etatik 18:30era eta 19:00etatik 20:30era).



Txaranga Eguna antolatu dute bihar arratsalderako

Herria jaietarako girotzen joateko, bihar Txaranga Eguna ospatuko da Eibarren. Hala eman zuten eza-gutzeria Ustekabeko kideek, tabernari batzuekin, Jon Iraola alkatearekin eta Patxi Lejardi jaietako zinegotziarekin batera martitzenean Estaziño kalean egindako agerraldian. Tabernarien ekimenez, eta Udalaren babesari esker, egingo da biharko ekitaldia: “Beste batzuetan sanjuanetako kontzertuak aurreko asteburuan izan dira, baina aurten asteburu bakarrean egitea tokatu denez, aurreko zapatuan kaleak girotzeko, eta bide batez inguruko herrietatik jendea Eibarrera erakartzeko, zerbait antolatu nahi izan dugu”.

Horrela, Eibarko Ustekabe txarangarekin batera, Tolosako Kalean, Ermuko Irulitxa, Elgoibarko Mausitxa eta Donostiako Joselontxo, bost txaranga horiek ibiliko dira herriko txoko guztiak musikarekin alaitzen, 19:00etatik 21:00etara. Hasieran txaranga bakoitza auzo batera (Urki, Urkizu, Amaña, Ipurua eta erdialdea) joango da, ordubetez-edo kalejiran ibiltzeko, eta ondoren bostak elkarrekin erdialdean aritzea da asmoa, Eibarko hainbat kantu eskaintzeko.

ZZ Torpes Ametsa tabernan

Bihar, 21:00etatik aurrera, ZZ Torpes arituko da Ametsa tabernako terrazan. 80ko hamarkadan CV eratu zuten Fernando Machin, Oscar Martinez-Toledano, Aitor Irisarri eta Oscar Sola eibartarrek ZZ Top ezagunaren musika joko dute.



Erriberako dantzak eskainiko dituzte Dantzari Egunean

Gaur 19:30ean ospatuko du Kezka Dantza Taldeak Eibarko Dantzari Eguna, “eguraldiak laguntzen badu Untzaga plazan, eta bestela Errebalen”. Aurten Nafarroa Garaia, zehazki Erriberari begira jarriko dira: “1960-70eko harmakadetan Eibarko zenbait enpresa beste herri batzuetara atera ziren. 50 urte ondoren, eibartar haien ondorengoak Nafar Erriberako kultura barneratuta bizi dira, eta beraz, paloteadoa moduko folklore adierazpen ederretan aritzen dira. Emanaldi horien zatitxo bat ekarriko dugu aurten”. Nafarroako beste dantza batzuekin osatuko dute jaialdia.

Bestalde, Kezka Dantza Taldetik kudeatzen duten **Dantza Eskolan 2024-2025an jarduteko izen-ematea zabalik** dago, nagusi zein haurrentzat (2020an jaiotakoetatik aurrera). Izena emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da, ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz (nagusien kasuan aukeraturako ordutegia), gero harremanetan jarri ahal izateko. Informazio gehiagorako helbide elektronikoko horretara ala 605711429 zenbakira idatzi daiteke (Argazkia: *Felipe Loiola*).

D.E.P, Sombras del Mal, The Red Army eta BDSM Zai-Zoi tabernan



Bittor Sarasketa kaleko Zai-Zoi tabernak hitzordu bikoitza antolatu du astebururako. Gaur, 18:30ean, Valentziatik datorren D.E.P (Dejadnos En Paz) taldea arituko da,

eta 20:00etan, berriz, Legarren sortutako Sombras Del Mal (Ekinocio Original) taldearen txanda izango da. Eta, bihar, The Red Army eta BDSM taldeek kontzertua emango dute, 19:00etan hasita.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1			6				5	9
	9	5			7	3		
								1
			9	4				
4			2		8			6
			7	3				
	4							
		1	3			4	2	
6	8				5			1

1	4	5	6	9	8	9
9	5	6	7	3	8	9
9	5	6	7	3	8	9
9	5	6	7	3	8	9
9	5	6	7	3	8	9
9	5	6	7	3	8	9
9	5	6	7	3	8	9

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	6					3	1	4
	3			4		2	7	
		7	1					
				3	7			6
6	9					4		7
3			4	6				
					8	6		
	4	1		5			8	
8	5	6						9

2	6	1	2	3	4	5	6	7	8	9
3	7	2	3	4	5	6	7	8	9	1
4	8	3	4	5	6	7	8	9	2	3
5	9	4	5	6	7	8	9	3	4	5
6	1	5	6	7	8	9	4	5	6	7
7	2	6	7	8	9	5	6	7	8	9
8	3	7	8	9	6	7	8	9	7	8
9	4	8	9	7	8	9	8	9	8	9

soluzioa

AURKITU 15 EZBERDINTASUNAK



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

Ekainak 14/20

BARIXAKUA 14

MUSIKA

18:30 D.E.P (Dejadnos En Paz, Valentzia).

20:00 Sombras Del Mal (Ekinocio Original, Legarre). Zai-Zoi taberna.

DANTZARI EGUNA

19:30/21:00 Kezka Dantza Taldearen eta eskolako taldeen erakustaldia. Untzaga.

MUSIKA

23:00 "El señor de los anillos" Eibarko Musika Bandaren kontzertua, proiektzioarekin lagunduta. Untzaga (euria egingo balu, Errebal Plazan izango da).

ZAPATUA 15

SASKIBALOA

09:30/13:00 Eibar Saskibaloiairen jaia: trebetasun-zirkuitoa, tiro-txapelketa, 3x3... Sariak irabazleentzat. Pintxoak eta edariak. Ipurua kiroldegia (squash-pista eta pista berdea).

FUTBOL 7

09:30 Eibarko kuadrilen III. futbol 7 txapelketaren hasiera.

16:15 Taldeen fasearen amaiera.

16:30/19:00 Fase finala. DJ Guti. Pintxoak, garagardoa, feskagarriak, zoketa. Unbe (goiko zelaia)

PILOTA

10:00 San Juan pilota txapelketa. Pilota eskolen partiduak, benjamin, alebin, infantil, jubenil eta seniorren eskuz binakako partidak. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa. Astelena frontoia.

MARTXA SOLIDARIOA

11:00 Minbiziaren aurkako III. Martxa. Aurretik zumba, Kaxaren eskutik. Untzaga.

BOLO-PALMA

12:00 XXXVI. Eibarko Hiria Bolo Palma txapelketa, Eibarko Casa de Cantabria eta Ermuko Peña Bolística. Ipuruako bolatokia.

KONTZERTUA

12:30 Untzaga gizarte zentruko koruaren emanaldia. 3 euro. Coliseo.

DANTZA LEHIAKETA

16:00/21:00 Eibarko IX. Break Dance eta New Style Txapelketa. Errebal Plazaia.

KALE-ANTZERKIA

19:00 "Kale gorria", Barsanti taldearen eskutik. Untzaga.

MUSIKA

19:00 The Red Army eta BDSM. Zai-Zoi taberna.

TXARANGA EGUNA

19:00/21:00 Eibarko Txaranga Eguna: Ustekabe (Eibar), Klean (Tolosa), Iruiltxa (Ermua), Mausitxa (Elgoibar) eta Joselontxo (Donostia). Kalejirak.

MUSIKA

21:00 ZZ Torpes. Ametsa taberna.

MUSIKA

23:00 Bengoren kontzertua. Untzaga.

DOMEKA 16

TXIRRINDULARITZA

09:30 LXXXVIII. San Juan Sari Nagusia – Gipuzkoako txapelketa, gazte kategoria. Irteera eta helmuga Untzagan.

AZOKA

10:00/14:00 Udako Bigarren Eskuko Azoka. Errebal Plazaia.

MUSIKA

12:30 Isabel Laspiurren piano ikasleen kontzertua. 3 euro. Coliseo.

BILLARRA

17:00 III. San Juan Txapelketa 3 bandako billarra. Casino Artista Eibarres (Bizikleta Plaza).

ASTELEHENA 17

UKELELE TAILERRAK

17:00/18:30 eta 19:00/20:30 Musika-tailerrak, Enrike Solinis irakaslearekin. Eibarko Musika Eskola.

MARTITZENENA 18

MUSIKA

18:00 "Euskelelea" ipuin musikatua, Euskal Barrok Ensemblek zuzendua. 5 euro. Coliseo.

EGUAZTENA 19

HITZALDIA

18:00 "Amen aurkako indarkeria instituzional matxista", Amavi elkartearen eskutik. Andretxea.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko Borondateen Dokumentu-ari buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte zentroa.

MUSIKA

19:00 J.B. Gisasola Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldia. Coliseo.

EGUENA 20

BARRAKAK

Egunean zehar, feriako atrakzioen prezioa 1,20 eurokoa izango da.

PUZGARRIAK

17:00/20:00 Umeentzako puzgarriak. Untzaga.

GIMNASIA ERRITMIKOA

19:00 Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia. Untzaga.

MUSIKA

19:00 J.B. Gisasola Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldia. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Ekainaren 14ra arte:

- "HILEKOA(K)" Ainhoa Aldazabal Gallastegi-Skolastikaren erakusketa (Andretxea).

Ekainaren 16ra arte:

- "LATIA EMON!" birziklatutako latekin egindako hormairudiak (Untzagako gizarte etxea).

Ekainaren 18ra arte:

- "DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAK" (Portalea)

Ekainaren 18tik uztailaren 30era:

- "NI NAIZ NAIZENA" Mugen Gainetik-Gehituren argazki erakusketa. (Andretxea)

Urriaren 20ra arte:

- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15an:** 19:45, 22:30
- **16an:** 20:00
- **17an:** 19:30

“La promesa de Irene”
DRAMA



2023/Kanada/121'
Zuzendaria: Louise Archambault
Aktoreak: Sophie Nélisse, Dougray Scott, Andrzej Sewewryn
Biografikoa/Nazismoa

2 ARETOA

- **15an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

“Segundo premio”
DRAMA



2024/Espainia/109'
Zuzendaria: Isaki Lacuesta
Aktoreak: Daniel Ibañez, Cristalino, Stéphanie Magnin
Musika/Lagunartea/Drogak

ANTZOKIA

- **15an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **17an:** 19:30

“Los vigilantes”
BELDURREZKOA



2024/AEB/102'
Zuzendaria: Ishana Shyamalan
Aktoreak: Dakota Fanning, Oliver Finnegan, Georgina Campbell
Thriller/Harrapatuta oihanean

ANTZOKIA

- **15an:** 17:00
- **16an:** 17:00

“Robotia”
ANIMAZIOKOA



2024/Espainia/84'
Zuzendaria: Diego Cagide
Robotak/Futbola/Umeentzat

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
laberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea herriko aldiarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

EPA EIBAR HHI
MATRIKULAZIOA ekainaren 17tik 28ra

- ESPAINIERA: HASTAPENA A1
- ESPAINIERA A2
- DBH TITULOA
- SARBIDEAK
- NAZIONALITATEA
- EUSKERA
- INGELESA
- MEKANIZAZIO-MODULORAKO SARBIDEA
- INFORMATIKA

ISASI, 39
943-208856

10:00 - 13:00
15:00 - 18:00

Bienvenida
Bienvenido
Ongi Etorri
Bun Venit!

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO EIBAR ORO
EXPONIAL

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Kilarion, s/n. SIGMA Industrialdea (Clasako hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 18

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ARAITZ!** Bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Asko maitte zaittugu! Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **INES,** domekan 2 urte beteko dozuz-eta! Famelixa guztiaren partetik!



Zorionak, **ASIER!!** Atzo 3 urte bete zenduazten-eta. Segi irribarre polit horrekin. Asko maitte zaittugu. Musu haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **AIORA!** Bixar 9 urte! Jarraitu bizitzaz gozaten! Ez galdu iñoiz irribarre hori!



Zorionak, **IKER!** Atzo 6 urte bete zenduazelako! Disfrutatu bizitzaz, alai eta pozik, zuk dakizun bezala! Musu haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **JULE!** Astelehenian 11 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **UXUE!!** Hillaren 18xan 6 urte beteko dozuz-eta! Oso ondo ospatu eguna, printzesa! Famelixa guztiaren partez.



UNAXek astelehenian 2 urte bete zittuan, eta **AITXITXAK** martitzenian. Zorionak, bikote. Asko maitte zaittuegu. Musu haundi bana.



Zorionak, **LOREA,** gaur zure 26. urtebetetze honetan. Egun ederra pasau eta jasoizu patxo potolo haundi bat etxekuen partez!!

Juan Luis Baglietto Arrizabalaga

10. URTEURRENA
2014/06/16

"Zure irribarreak eta maitasunak gure bihotzean diraute"

MAITE ZAITUGU
- ETXEKUAK -

Miguel Mari Uzkudun Garitagoitia

2024/06/04

Urak dakarrena urak daroa.
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

- ZURE FAMILIA -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Estaziño 4an (4. pisua). 4 logela, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekuarekin. 661874548.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Deban, udako hiletan eta irailerako. Argitsua. Igoailuarekin. 656723437.

- Pisua alokagai Vielhan (Baqueira). 75m². 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igoailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolasguneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztail edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712. .

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal industrialia salgai. 667895597.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. 624523413.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 693741354. Irati.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioa) eta garbiketarak egiteko. 603503689.
- Emakumea eskaintzen da etxeak edo tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 688758630.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko (akreditazioarekin) eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 643577022.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 613304239.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 653075865.

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsalde, gauzez eta asteburuetan. 640821269.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 677259560.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 688728655.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641756213. .

4.2. Langile bila

- Ileapaintzailea behar da Elgoibarko ileapaindegi batean. Jornada guztirako edo erdirako. 634261485.
- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 69945279.
- Kamarera/o behar da Eibarko Topa-Leku tabernan. 943558728. Bidali curriculum-a: lourdesburgos@hotmail.es
- Euskeraz dakien neska behar da uztailan Deban umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Fisioterapeuta bat behar da Eibarko kontsulazio batean. Euskera eta esperientzia baloratuko da. 699632248 watsapez edo ane_mendia@hotmail.com
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun osoz lan egiteko pertsona bat behar du, ekaina bukaeran edo uztaila hasieran hasteko.

Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Jatetxea ixten dela-eta, mahai, silla, jarleku, makineria eta baxera edo ontziteria salgai. 682737282.

6.2. Eman

- Gazteentzako/haurrentzako logelako altzariak emateko prest. 90 zm-ko ohe-egitura, oheburua, idazmahai eta apalak. Erabilera-markekin, baina baldintza onargarrietan. 686058459. Leire.
- 90 ohe-kabia oparitzen da. 943207506.
- 3 hilabeteko hiru katakume oparituko nituzke. 632252602.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ITURGINTZA

PERU FONTANERO

iturgintza eta kalefakzio konponketak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoaren aldaketa
Manparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesen konponketa
Komunetako ihesen konponketa/aldaketa
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu
Destarbatzeak / Pintura lanak

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

beila toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txanta, 30 - 1. eta beheak
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, toilerria...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 983



943-206776

Kia Gama Hibridoa.

Baldintza bereziak ekainaren 24ra arte.



Movement that inspires

Hilean:

105 €tik aurrera*

Sarrera: 8.079,01 €

Azken kuota: 10.480,24 €

Kiaren Gama Hibridoa mundu bakoitzeko onena nahi dutenentzat diseinatuta dago. Gure hibridoekin, ez duzu aukeratu behar, dena izan dezakezu. Gozatu abantaila hauetaz baldintza bereziekin ekainaren 24ra arte eta ezagutu oreka perfektua bidaia bakoitzean.



Apalategi, 1 EIBAR

943 70 70 33

gruponaiacar.com

CO₂ isuri konbinatuak WLTP (g/km): 100-146. WLTP konsumo konbinatua (l/100 km): 5,6-7,4. *Itxura: LG 1.061 MHEV 100CV Concept MY25-entzat finantzaketa adibidea. PSH: 20.998,38€. Finantzaletaren prezioa: 19.024,10€. Sarrera: 8.079,01€. Finantzatutako zenbatekoa: 11.862,10€ (ondarritak babesteko aukerako aseguruia barne: 466,26€ eta % 1,95eko formalizazio-komisioa: 450,75 €). 109€-ko 47 kuota eta 10.480,24 €-ko azken kuota. TIN: % 7,95eko UTB: % 9,55. UTBaren kalkuluan finantzaletaren kotu gisa sartzen ez den aseguruia. Interesak gutxiya: 3.553,58€. Kredituaren kostua, gutxiya: 4.003,89€. Zehaztutako zenbatekoa gutxiya: 11.415,14€. Prezio osoa epoka: 23.494,25€. Frantziako amortizazio-sistema: Banco Cetelem SAUrekin finantzatu 2024ko ekainaren 24ra arte. Baliteke bestaratuak ereduak ez ezotzeta bat eskaintzekoekin. Ondarritak babesteko aseguruia barne hartzen da, honako estaldura hauekin: heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, soldafapekoentzako langabezia, autonomoentzako jardueria eteneta eta ibilgailuaren galerak osoa. Cardiff Assurance Vie eta Cardiff Assurances Riquies Drivers aseguru-erakleekin kontratatuta, Espaniako sukursalak, E-129 eta E-130 gakoarekin erregistratuta DGSPRen Erregistroan, humenez humen, Banco Cetelem SAUren bitartekaritzaekin (Banka Aseguruen Operadore Eraketa, Aseguru Bitartekarien Erregistro Berezian Inskribatua, OV-0046 gakoarekin). Erantzukizun Zibil Profesionalerako aseguruia da, eta finantza-gaitasunaren betekizuna beletzen da. Estalduren aplikazioak polizaren baldintza orokorren eta partikularen mende daude. Kontuatu Cetelemek www.cetelem.es/seguros helbidean agentzia-kontratu sinatu duen aseguru-itxaski.

